


EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA



BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Itundutako posta-ordaina: 8/98

Internet

Franqueo concertado: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, 1
Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

www.euskadi.net

Administración: c/ Donostia-San Sebastián, 1
Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Xedapen Orokorrak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

2953

59/2005 DEKRETUA, martxoaren 29koa, Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duena.

1994ko maiatzaren 24an onartu zen 189/1994 Dekretua, Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolaketa eta jarduna arautu zituena. Dekretu horrek Euskadiko Kooperatiben Erregistroa antolatu zuen; egokitu egin zuen Erregistroa Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak aurreko legeriarrekiko ezarritako aldaketetara. Egokitze horrek, batik bat, erregistro-sistema indartu zuen, horrela, kooperatiben enpresa-trafikoan ezinbestekoa den segurtasun juridikoa handitzea lortuko baitzen. Horretarako, bi ildo nagusi ezarri ziren: bata, Euskadiko Kooperatiben Erregistroa kooperatibekiko eraginkortasun juridiko pribatua duen erregistro juridiko gisa definitu zuen; besteak, berriz, Erregistro hori Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-antolamenduaren barruan, eta zehatzago esanda, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzza Sailean (egun Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila) kokatu zuen.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

2953

DECRETO 59/2005, de 29 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento del Registro de Cooperativas de Euskadi.

Con fecha 24 de mayo de 1994 se aprobó el Decreto 189/1994, de organización y funcionamiento del Registro de Cooperativas de Euskadi. Este Decreto vino a ordenar el Registro de Cooperativas de Euskadi adaptándolo a las modificaciones que la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi, había establecido respecto a la legislación vigente con anterioridad. Dicha adaptación vino a reforzar, sobre todo, el sistema registral, con la finalidad de aumentar la seguridad jurídica imprescindible en el tráfico empresarial en el que se mueven las sociedades cooperativas. Para ello se establecieron dos líneas fundamentales, una basada en la definición del Registro de Cooperativas de Euskadi como un registro jurídico con eficacia jurídica privada respecto a las sociedades cooperativas y otra basada en su incardinación dentro de la organización administrativa de la Comunidad Autónoma Vasca, más concretamente en el Departamento de Trabajo y Seguridad Social (actualmente Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social) del Gobierno Vasco.



Dekretu hori onartu zenetik hamar urte igaro dira, eta urte horiek bermatzen dituzte, hain zuzen ere, bertan sartu diren aldagetak; aldageta horiek ezinbesteko tresna bilakatu dira enpresa-trafikoaren segurtasun hori indartzeko, bai eta kooperatibek Erregistro horren publizitate materiala eta formala ahalbidetuko duen tresna azkar eta dinamiko bat eduki dezaten errazteko. Hala ere, Dekretu hori indarrean egon den hamar urte horietan, bilakaera jasan dute, bai zuzenbide-eta erregistro-mailako jardunak, bai kooperatibak sartuta dauden errealitate sozialak; horixe erakusten du 2000. urtean kooperatiben Legeari egin zitzaion aldagetak. Bilakaera horrek premia berriak sortzea, eta garai batean garrantzitsuak ziren beste batzuk desagertzea ekarri du, eta horri zuzenbide- eta erregistro-mailako erantzuna eman behar zaio.

Frogatuta gelditu da 1994ko Dekretuaren egiturak duen balioa eta eraginkortasuna; Dekretu haren bidez, arautze minimalista batetik arautze zabalago eta zorrotzago batera pasa zen, eta horri esker, kooperatibak segurtasun juridiko handi batez baliatu dira. Horregatik, Dekretu hura mantentzea erabaki da; aurrekoan bezala, Titulu eta Kapituluak banatu da, eta aipatutako helburuak lortzeko komenigarriak jotzen ziren artikulak aldatu dira. Hala ere, argitasunaren eta ulergarritasunaren izenean, Erregelamendua osorik idaztea erabaki da; beraz, ez da zati baten aldageta, baizik eta indarrean zegoen Dekretua ordezkatzeko duen beste Dekretu bat.

Dekretu honetako I. tituluak —Erregistroaren antolaketa, eragina eta funtzionamendua—, erregistroaren araubide orokorra arautzen du, eta horren egituraketa, jardute-eremua eta egitekoak zehazten ditu.

Erregistroak bateratua izaten jarraitzen du, izan ere, erregistro-tituluak kalifikatzeko irizpideak bateratzeko arrazoiak berberak dira; baina Lurralde Ordezkaritzetako zenbait egiteko banatzea posible da, egiteko horiek, berez, bateratze horren beharrik ez dutenean.

Halaber, Kooperatiben Erregistroa Autonomia Erki-degoko administrazioaren egituretan sartuta dagoela kontuan izanik, jarduteko irizpide batzuk ezarri dira, Erregistro horrek, bere ahalmen juridikoak erabiltzeaz gain, kooperatiba-sustapenerako tresna aktibo gisa ere jardun dezan. Arautu diren jardute-irizpide horiekin kooperatiben egintzak eta kontratuak ahalik eta azkarraren inskribatzen lagundu nahi da; Erregistroan egingo dituzten jarduerak eraginkorragoak izan daitezen lagunduko da, eta hori guztia Administrazioaren eta kooperatiben —edo horiek biltzen eta ordezkatzeko dituzten elkarteetan— lankidetzaren ondorio izango da.

Legearen arabera egin diren eta oraindik indarrean dauden egintzak inskribatu ahal izango dira, baita egin-

Los diez años transcurridos desde su aprobación han avalado las reformas introducidas en el mismo, configurándose como instrumento imprescindible para reforzar la mencionada seguridad en el tráfico empresarial, así como para favorecer que las propias sociedades cooperativas tuviesen un instrumento ágil y dinámico que permitiese la publicidad material y formal inherente al Registro. No obstante, en esos diez años de vigencia del precedente Decreto, tanto la práctica jurídico-registral como la propia realidad social en la que están inmersas las sociedades cooperativas han ido evolucionando, como lo demuestra la propia modificación de la Ley realizada en el año 2000. Esta evolución ha originado que aparezcan nuevas necesidades y que otras que en su momento eran importantes hayan ido desapareciendo, lo que obliga a dar una respuesta en el ámbito jurídico registral.

Habiéndose comprobado la validez y eficacia de la estructura del Decreto de 1994, con el que se pasó de una regulación minimalista a una más extensa y exigente gracias a la cual las sociedades cooperativas han podido beneficiarse de un elevado grado de seguridad jurídica que debe permanecer, se ha optado por mantener la misma, con su división en Títulos y Capítulos, modificándose aquellos aspectos de sus artículos que se consideraban más convenientes para lograr las finalidades mencionadas. No obstante, para mayor claridad y comprensión se ha optado, así mismo, por redactar íntegramente el nuevo Reglamento, no realizándose por tanto una modificación parcial sino un nuevo Decreto que sustituye al anteriormente vigente.

El Título I del Decreto, dedicado a la Organización, Eficacia y Funcionamiento del Registro, regula el régimen general de actuación del mismo, fijando su estructuración, su ámbito de actuación y sus funciones.

Se mantiene el carácter unitario del Registro, al subsistir las razones de uniformizar los criterios de calificación de los títulos registrales por las que se estructuró de ese modo, pero se posibilita que se desconcentren algunas de sus funciones en las Delegaciones Territoriales cuando por su propia esencia no conllevan la citada necesidad de uniformización.

Se establecen así mismo unos criterios de actuación para posibilitar que el Registro de Cooperativas, además de ejercer sus competencias jurídicas, se constituya como un instrumento activo de fomento cooperativo, habida cuenta de la incardinación del mismo en las estructuras de la Administración de la Comunidad Autónoma. Con los regulados criterios de actuación se pretende favorecer la más rápida inscripción de los actos y contratos de las sociedades cooperativas, coadyuvando a que sus actuaciones ante el Registro sean más eficaces, todo ello derivado del contexto de colaboración entre la propia Administración y las sociedades cooperativas y las asociaciones que las agrupan y representan.

Podrán inscribirse aquellos actos legítimamente realizados que aún conserven su vigencia aunque quienes

tza horien igorleak momentu horretan Erregistroan inskribatuta ez badaude ere.

Aurreko Dekretuan araututako Liburu egunkaria desagertu da. Horrekin erregistroko izapideak sinplifikatu nahi dira, beti ere, segurtasun juridikoa alde batera utzi gabe; izan ere, Kooperatiben Erregistroa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren barruan dagoenez, bertara sartzen den agiri oro dagokion Saileko Sarrera Erregistroan jasota geldituko da, eta horrela, segurtasun juridikoari eutsi egiten zaio agirien sarrerari eta horien ondorio juridikoei dagokienez, eta gero egin behar diren izapideak azkartu egiten dira. Halaber, liburuei dagokienez, berritasun gisa aipatu behar da, Europar Kooperatiben Inskripzio Liburua sortu izana.

Behin-behineko ebazpen ukatzailearen eta behin betikoaren arteko bereizketarik ere ez da egiten, administrazio-prozedurak arautzen dituen oinarrizko araudiari lotu nahi baitzaio, eta inskriba daitekeen egintza bat baino gehiago duten tituluen inskripzio partziala errazten da.

II. tituluan ere aldaketa esanguratsu batzuk egin dira. Titulu horrek, hain zuzen ere, kooperatibak inskribatzeari buruz dihardu, eta kooperatiben jardunaren aldiak taxutzen dituen erregistro-araubidearen hainbat alderdi hartzen ditu. Horrela, inskribatu behar den titulu egiatagiri bat denean, notario bidez legezkatutako sinadurarekin aurkeztu ahal izango da, baina horretaz gain, sinadurak legezatzeko eskumena duen funtzionarioaren aurrean ere aurkeztu ahal izango da.

Artezkari-tza Kontseiluen berritzea aldi berekoa denean, estatutuetan jaso ahal izango da gutxienez eta gehienez zenbat kide izango diren.

Berritasun garrantzitsu bat ere aipatu behar da kooperatiben likidazioaren barruan: bat-bateko aktiboaren arautzea; sozietate baten likidazioa onartu eta horren ondorioz erregistro-idazpenak baliogabetu ondoren, behar bezala esleitu ez diren ondasunak ageri direnean jarraituko zaio arautze horri.

III. tituluak Kooperatiba Elkarteen inskripzioaz dihardu. Kooperatiba Elkartetzat hartzen dira Euskadiko Kooperatiben Legeak araututako kooperatibak biltzen dituzten batasun, federazio, konfederazio edo beste elkarte batzuk. Inskripzioa publikitate formalaren ondorioetarako egingo da soilik, elkartzeko eskubideari buruz Konstituzioan araututakoa aintzat harturik.

Azkenik, IV. tituluak Kooperatiben Erregistroaren beste egiteko batzuk adierazten ditu.

Gordailatzeko kontuen aurkezpena ere sinplifikatu egin da. Izan ere, Erregistroak ez ditu kalifikatu behar kontuetan ageri diren administrazioen sinadurak; nahikoa izango da Artezkari-tza Kontseiluko idazkariak egiatagiri bat egitea; egiatagiri horretan, kontuak administrazioaile guztiek sinatu dituztela jasoko da.

los hayan emitido no se encuentren en ese momento registralmente inscritos.

Desaparece el Libro Diario regulado anteriormente. Con ello se tiende a simplificar la tramitación registral sin perjuicio de la seguridad jurídica, ya que al estar encuadrado el Registro de Cooperativas en la Administración General de la Comunidad Autónoma Vasca todos los documentos que entran en el mismo son anotados en el Registro de Entradas del Departamento en el que se enclava, con lo que se mantiene la mencionada seguridad jurídica en lo que atañe a la constancia de la entrada de documentos y los efectos jurídicos que de la misma derivan y se agiliza la posterior tramitación. Así mismo, en lo que corresponde a los Libros, como novedad está la creación del Libro de Inscripción de Sociedades Cooperativas Europeas.

Desaparece también la distinción, para ajustarse a la normativa básica que regula los procedimientos administrativos, entre resolución denegatoria provisional o definitiva y se facilita la inscripción parcial de aquellos títulos que contengan más de un acto inscribible.

El Título II, destinado a la inscripción de las Sociedades cooperativas, y que comprende los aspectos del régimen registral configurador de las distintas fases de la vida de las mismas, contiene también algunas modificaciones significativas. Así, aquellos actos cuyo título inscribible sea un certificado, además de poder presentarse previa legitimación notarial de firmas, podrán también presentarse ante el funcionario entre cuyas competencias se encuentra la de la autenticación de firmas.

Se acepta que para el caso de que la renovación del Consejo Rector se haga de forma simultánea, pueda establecerse estatutariamente un número mínimo y máximo de miembros.

Como novedad importante dentro de las liquidaciones de las cooperativas se encuentra la regulación del activo sobrevenido para el caso de que, tras procederse a la aprobación de la liquidación de una sociedad y su consecuente cancelación de asientos registrales, aparezcan bienes que no han sido adjudicados correctamente.

El Título III contempla la inscripción de Asociaciones de Cooperativas, entendiéndose por tales a las Uniones, Federaciones, Confederaciones y otras entidades asociativas que agrupen mayoritariamente a Cooperativas reguladas por la Ley de Cooperativas de Euskadi. Dicha inscripción se producirá a los solos efectos de publicidad formal en atención a la propia regulación constitucional del derecho de asociación.

Por último, el Título IV se destina a otras funciones del Registro de Cooperativas.

Se simplifica la presentación de las Cuentas para su Depósito al desaparecer el requisito de que se califique por el Registro las firmas de los administradores que constan en las cuentas, sustituyéndose por un certificado del Secretario del Consejo Rector de que las cuentas están firmadas por todos los administradores.

Kooperatibek kontuak gordailatzeak duen garrantzia dela-eta, Erregistroan ez da jasoko epez kanpo aurkeztutako inolako agiririk; salbuespen izango dira, norma la den bezala, kooperatibaren funtzionamendu egokirako edo haren likidazio ordenaturako ezinbestekoak diren zenbait egintza.

Azkenik, zera aurreikusten da geroari begira: Erregistroa aurrerapen teknologikoak eskaintzen dituen aukera berrietara egokitu ahal izango dela, aukera horiek Kooperatiben Erregistroaren helburu eta xedeak azkarago eta modu eraginkorragoan betetzen lagunduko duten tresna gisa erabili ahal daitezen.

Ondorioz, Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen Azken Xedapenetatik bosgarrena garatzeko, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusiari eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari entzun ondoren, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuaren proposamenez, eta Jaurlearitzaren Kontseiluak 2005eko martxoaren 29an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.— Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen da; Dekretu honen eranskinean dator erregelamendu hori.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

Dekretu hau indarrean jarri baino lehen hasitako inskripzio-espeditenteak momentu horretara arte indarrean egongo diren xedapenen arabera izapidetu eta ebatziko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolaketa eta jarduna arautu zuen maiatzaren 24ko 189/1994 Dekretua indargabetzen da, baita maila bereko edo baxuagoko beste edozein xedapen ere, baldin eta Dekretu honetan gai honen inguruan ezarri denaren kontrakoa bada.

AZKEN XEDAPENAK

Lebenengoa.— Erregelamendua garatzea.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuari eskumena ematen zaio Dekretu hau garatzeko eta gauzatzeko beharrezko diren xedapenak hartzeko, Erregistroaren zenbait eginkizunen banaketa eraginkorragoa izan dadin neurri arautzaileak sustatzeko, erregistro-mailako zenbait zerbitzu ordaintzea bultzatzeko, eta erregistro-mailako egitekoak teknologia berrien garapenak eskain ditzakeen bitartekoetara egokitzeke.

Bigarrena.— Indarrean jartzea.

Dada la trascendencia de que las sociedades cooperativas depositen sus cuentas, el Registro no inscribirá ningún documento presentado con posterioridad a la fecha en que debían haber sido aquellas presentadas, con la lógica excepción de una serie de actos imprescindibles para el buen funcionamiento de la sociedad o su ordenada liquidación.

Finalmente, se prevé que en un futuro se pueda adaptar el Registro a las nuevas posibilidades que ofrece el progreso tecnológico, con el fin de incorporarlas como instrumentos que hagan más ágil y eficaz el cumplimiento de las finalidades y objetivos propios del registro de Cooperativas.

En su virtud, en desarrollo de la Disposición Final Quinta de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de cooperativas de Euskadi, oído el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, oída la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 29 de marzo de 2005,

DISPONGO:

Artículo único.— Se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento del Registro de Cooperativas de Euskadi, que se adjunta como anexo al presente Decreto.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Los expedientes de inscripción registral iniciados antes de la entrada en vigor de este Decreto se tramitarán y resolverán con arreglo a las disposiciones vigentes hasta dicho momento.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 189/1994, de 24 de mayo, de organización y funcionamiento del Registro de Cooperativas de Euskadi, así como cuantas otras disposiciones de igual o inferior rango que en esta materia contradigan o se opongan al presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Desarrollo reglamentario.

Se faculta al Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social para adoptar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto y para promover las medidas normativas dirigidas a hacer efectiva la desconcentración de algunas funciones del Registro, así como para promover el pago de exacciones por determinados servicios registrales y para la adaptación de las funciones registrales a los medios que pueda proporcionar el desarrollo de las nuevas tecnologías.

Segunda.— Entrada en vigor.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko martxoaren 29an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

59/2005 DEKRETUAREN ERANSKINA

EUSKADIKO KOOPERATIBEN ERREGISTROAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAREN ERREGELAMENDUA

I. TITULUA

EUSKADIKO KOOPERATIBEN ERREGISTROAREN ANTOLAKETA, ERAGINKORTASUNA ETA FUNTZIONAMENDUA

I. KAPITULUA

EUSKADIKO KOOPERATIBEN ERREGISTROAREN ANTOLAKETA ETA EGINKIZUNAK

1. artikulua.– Antolaketa eta izaera.

1.– Euskadiko Kooperatiben Erregistroa, Euskadiko Kooperatibei buruzko Legearen 15. artikulutik 18. artikulura arautzen dena, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Gizarte Ekonomiko Zuzendaritzari atxikitako organo bateratu bezala egituratzen da.

Erregistro horrek izaera bateratua badu ere, bere eginkizunetako batzuk banatu egin ahal izango dira Sail honen Lurralde Ordezkaritzetan, sailaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen Dekretuan ezartzen denaren arabera.

2.– Erregistro horrek izaera juridikoa du eta doako zerbitzu publikoa da, nola herritarrentzat, hala bertan izena eman nahi duten erakundeentzat.

2. artikulua.– Helburua.

1.– Euskadiko Kooperatiben Erregistroak eskumena izango du lehen, bigarren nahiz hurrengo mailako kooperatibekiko, kooperatiba-taldeekiko, kooperatiba-korporazioekiko eta kooperatiba mistoekiko, baldin eta horien jarduera kooperatibizatua Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan burutzen bada oro har, eta horretaz gain, lurralde horretan helbideratuta badaude. Halaber, Europako kooperatibekiko ere izango du eskumena, baldin eta horien egoitza soziala lurralde honetan badago, eta Kooperatibei buruzko uztailaren 16ko 27/1999 Legearen 2.a artikuluan ezarritakoari jarraituz,

El presente Decreto entrará en vigor a los treinta días de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de marzo de 2005.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

ANEXO AL DECRETO 59/2005

REGLAMENTO DE ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DEL REGISTRO DE COOPERATIVAS DE EUSKADI

TÍTULO I

ORGANIZACIÓN, EFICACIA Y FUNCIONAMIENTO DEL REGISTRO DE COOPERATIVAS DE EUSKADI

CAPÍTULO I

ORGANIZACIÓN Y FUNCIONES DEL REGISTRO DE COOPERATIVAS DE EUSKADI

Artículo 1.– Organización y carácter.

1.– El Registro de Cooperativas de Euskadi, previsto y regulado en los artículos 15 a 18 de la Ley de Cooperativas de Euskadi, se estructura como un órgano unitario adscrito a la Dirección de Economía Social del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco.

Sin perjuicio del carácter unitario del Registro, podrán desconcentrarse algunas de sus funciones en las Delegaciones Territoriales de este Departamento en los términos que establezca su Decreto de estructura orgánica y funcional.

2.– Dicho Registro tiene carácter jurídico y se configura como un servicio público de funcionamiento gratuito para los ciudadanos y ciudadanas y las entidades interesadas en acceder al mismo.

Artículo 2.– Objeto.

1.– El Registro de Cooperativas de Euskadi será competente respecto a las Cooperativas de primer, segundo o ulterior grado, Grupos cooperativos, Corporaciones cooperativas y Cooperativas mixtas, cuya actividad cooperativizada se lleve a cabo en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco con carácter principal, estando, además, domiciliadas en dicho territorio, así como respecto a las Sociedades Cooperativas Europeas con domicilio social en el mismo y que de conformidad con lo previsto en el artículo 2.A de la Ley 27/1999, de 16 de julio, de Cooperativas, desarrollen

lurralde honetan burutzen badute jarduera kooperatibizatua.

2.– Eskumena izango du, halaber, kooperatiba-batasun, -federazio eta -konfederazioekiko, edo eta Euskadiko Kooperatiben Legearen aplikazio-eremuak diren sozietate edo elkarteak biltzen dituzten beste elkarte batzuekiko.

3.– Erregistroan inskribatzea aukerakoa izango da, Euskadiko Kooperatiben Legeko 134.1 artikuluaekin bat etorritz, artikulua honetako 1. paragrafoan adierazitako erakundeak baldin badira —helburu ekonomikoa duten erakundeak izango dira, pertsonifikatuak izan ala ez—, eta gehienbat Lege horretan araututako kooperatibez osaturik badaude.

3. artikulua.– Eginkizunak eta jarduteko irizpideak.

1.– Hona hemen Erregistroaren eginkizunak:

a) Lehen, bigarren nahiz hurrengo mailako kooperatiben edo Erregelamendu honen 2. artikuluan adierazitako erakunde edo entitateen egintzak, indarreko araudiaren arabera Erregistroan sartu beharrekoak direnak, kalifikatzea, inskribatzea eta egiaztatzea.

b) Derrigorrezko liburuak gaitu eta legeztatzea.

c) a) idatz-zatian aipatzen diren kooperatiben urteko kontuen gordailua eta kooperatiba horietan hartutako erabakien egiaztagiria jasotzea; kalifikatzeko, Legeak eskatutakoak izan behar dute aurkeztutako agiriak, Batzar Orokorrek behar bezala onartu behar ditu, eta beharrezko sinadurak eraman behar dituzte.

d) Kooperatiben izenari buruzko egiaztagiria ematea.

e) Bere eskumeneko gaiei buruzko kontsultak argitzea.

f) Kooperatiba berrien sustatzaileei eta dagoeneko eraberrita dauden kooperatiben administratzaile eta kontseilariei aholkuak ematea, kalifikatzeko eta inskribatzeko, oharrak egiteko edo gordailatzeko aurkeztutako agiriaren gaineko zalantzen edo agiri horien akatsen inguruan.

g) Euskadiko Kooperatiben Legeak, Erregelamendu honek edo berau garatzeko arauak agintzen dioten beste edozein eginkizun.

2.– Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren ebazpenek eta haren jardunak izaera juridikoa dute, baina horretaz gain, Erregistro hori kooperatiba-sustapeneko tresna aktibotzat hartu behar da. Horregatik, Erregistro horren egitekoak burutzerakoan, honako jardute-irizpideak izan behar dira kontuan:

a) Zalantzarik izanez gero, arauak interpretatzeko orduan, kooperatibaren benetakotasunaren, garapenaren eta jarraipenaren alde egingo da.

b) Gizartearen onerako izango da kooperatiba berriak sortzea —eratze, batze, zatitze edo eraldatze bidez— eta lehendik zeudenak berraktibatzea. Horregatik, espe-

con carácter principal su actividad cooperativizada en dicho territorio.

2.– Asimismo, será competente respecto a las Uniones, Federaciones y Confederaciones de Cooperativas u otras entidades asociativas que agrupen mayoritariamente a Sociedades y agrupaciones incluidas en el ámbito de aplicación de la Ley de Cooperativas de Euskadi.

3.– La inscripción en el Registro será meramente potestativa cuando, de conformidad con el artículo 134.1 de la Ley de Cooperativas de Euskadi, se trate de entidades, personificadas o no, pero con finalidad económica, distintas de las previstas en el número 1 de este artículo y constituidas, en su mayoría, por Cooperativas reguladas en la citada Ley.

Artículo 3.– Funciones y criterios de actuación.

1.– El Registro tendrá las siguientes funciones:

a) Calificar, inscribir y certificar los actos que según la normativa vigente deban acceder a dicho Registro, que se refieran a Cooperativas de primer, segundo o ulterior grado, y demás organizaciones o entidades mencionadas en el artículo 2 de este Reglamento.

b) Habilitar y legalizar los Libros obligatorios.

c) Recibir el depósito de las cuentas anuales y la certificación de los acuerdos correspondientes de las Cooperativas a las que se refiere el apartado a), limitándose a calificar si los documentos presentados son exigidos por la Ley, si están debidamente aprobados por la Asamblea General y si constan las preceptivas firmas.

d) Expedir certificaciones sobre la denominación de las entidades cooperativas.

e) Resolver consultas sobre las materias que sean de su competencia.

f) Asesorar a los promotores de nuevas Cooperativas, y a los administradores y asesores de las ya constituidas, sobre las dudas, insuficiencias u otros defectos de los documentos presentados a calificación e inscripción, anotación o depósito.

g) Cualquier otra función que le atribuyan la Ley de Cooperativas de Euskadi, este Reglamento, o sus normas de desarrollo.

2.– Sin perjuicio del carácter jurídico de las resoluciones y efectos de la actividad del Registro de Cooperativas de Euskadi, éste se constituye, además, como un instrumento activo de fomento cooperativo. En consecuencia, en el ejercicio de sus funciones se tendrán en cuenta los siguientes criterios de actuación:

a) En caso de duda las normas se interpretarán en el sentido más favorable para la autenticidad, desarrollo y continuidad de la Cooperativa.

b) Se considerará de interés social la creación de nuevas Cooperativas, sea por constitución, fusión, escisión o transformación, así como la reactivación de las exis-

dientek bideratzerakoan kasu horiek izango dute lehentasuna.

c) Sustatzaileek aurkeztutakoa ez bada zuzenbidearen arabera, ezezkoa ematen duen ebazpenari ohar bat erantsi ahal izango zaio, espedientearen konplexutasunak hala eskatzen duenean; ohar hori orientatzailea izango da, eta bertan aukera baliagarri batzuk adieraziko dira.

d) Erregistroak Euskadiko Kooperatiben Konfederazioekin eta beste erakunde ordezkari batzuekin lanikidetzan jardungo du, Erregistroan gehien erabiltzen diren agirien ereduak —orientatzaileak, lotesleak ez direnak— egiterakoan.

e) Interesatuak eskatzen dutenean, edo esparruaren, baltzu-eroldaren ezaugarrien edo espedientetik aterako beste datu objektibo batzuen ondorioz hala komeni denean, ebazpenarekin batera eranskin edo azalpen ohar bat emango da, eta bertan ebazpenaren edukien inguruko kontzeptu edo termino juridikoen berri emango da ahalik eta modurik sinpleenean; marrazki bidezko adibideak ere sartu ahal izango dira.

II. KAPITULUA ERREGISTROAREN ERAGINKORTASUNA

4. *artikulua*.— Erregistroaren eraginkortasuna.

Publizitate material eta formalean, legezkontasunean, legitimazioan, lehentasunean eta traktu jarraian oinarritzen da Erregistroaren eraginkortasuna.

5. *artikulua*.— Inskripzioen izaera.

1.— Erregistroan inskribatzea derrigorrezkoa izango da Euskadiko Kooperatiben Legean edo Erregelamendu honetan hala xedatzen bada.

2.— Lege-testu horretako 16.2 artikuluekin bat etorritik, kooperatiben eratze, bategite, banatze, desegite eta berraktibazioen inskripzioak izaera eratzaila izango du, baita mota horretako baltzu bihurtzeko egintzen inskripzioak ere. Gainerako kasuetan inskripzioa adierazpenezkoa izango da.

6. *artikulua*.— Legezkontasuna.

Inskribatu beharreko agiriak kalifikatu egingo dira, eta horretarako, kontuan hartuko da agirien itxuraren legezkontasuna, agiriak eman nahiz sinatzen dituztenen legitimazioa, eta edukiaren, agirien ondorioen eta Erregistroko idazpenen balioa, indarrean dagoen legeriaren arabera.

7. *artikulua*.— Publizitate formala.

1.— Euskadiko Kooperatiben Erregistroa publikoa da.

2.— Erregistroko liburuak eta idazpenek aipatzen dituzten agiriak erakutsiz egingo da publizitatea, Erregistroak emandako egiaztagiribidez, eta artikuluhonetako 5. paragrafoan aipatzen diren bideak erabiliz.

tentes. Es por ello que estos casos tendrán prioridad a efectos del despacho de expedientes.

c) Si la formulación planteada por los promotores no es ajustada a Derecho, la resolución denegatoria podrá incorporar, cuando la complejidad del expediente así lo requiera, una nota informativa con algunas opciones válidas, a título enunciativo y orientador.

d) El Registro colaborará con las Confederaciones de Cooperativas de Euskadi y otras organizaciones representativas para la elaboración de modelos orientativos y no vinculantes de los documentos de más frecuente utilización ante el Registro.

e) Cuando las personas interesadas lo soliciten o cuando, por razón del ámbito, características del censo social u otros datos objetivos derivados del expediente parezca oportuno se emitirá, además de la resolución registral, un anexo o nota explicativa de los conceptos o términos jurídicos en el lenguaje más llano posible y del alcance y contenidos de dicha resolución, pudiendo incluso añadir ejemplos ilustrativos.

CAPÍTULO II EFICACIA REGISTRAL

Artículo 4.— Eficacia del Registro.

La eficacia del Registro está definida por los principios de publicidad material y formal, legalidad, legitimación, prioridad y tracto sucesivo.

Artículo 5.— Carácter de las inscripciones.

1.— La inscripción en el Registro será obligatoria cuando así lo disponga la Ley de Cooperativas de Euskadi o el presente Reglamento.

2.— De conformidad con el artículo 16.2 del mencionado texto legal, la inscripción de los actos de constitución, fusión, escisión, disolución y reactivación de las Cooperativas, así como la relativa a la transformación en una Sociedad de esta naturaleza, tendrá carácter constitutivo. En los demás casos la inscripción será declarativa.

Artículo 6.— Legalidad.

Los documentos sujetos a inscripción serán sometidos a calificación, que comprenderá su legalidad formal, así como la legitimación de los que los otorgan o suscriben y la validez del contenido, de lo que resulte de ellos y de los asientos del Registro, de acuerdo con la legislación vigente.

Artículo 7.— Publicidad formal.

1.— El Registro de Cooperativas de Euskadi es público.

2.— La publicidad se hará efectiva mediante la manifestación de los Libros y de los documentos del archivo a que hagan referencia los asientos registrales, por certificación expedida por el Registro y por los demás medios a que se refiere el párrafo 5 de este artículo.

Egiaztatzea da Erregistroko idazpenak nahiz Erregistroan artxibatu edo gordetako agiriak modu frogagarrian erakusteko bide bakarra.

3.– Egiaztapenak idatziz eskatu beharko zaizkio Erregistroko arduradunari, egiaztatu nahi diren alderdiak zeintzuk diren argi eta garbi adieraziaz; eskabideari sarrera eman, eta hamabost eguneko epean emango dira egiaztapen horiek. Jada inskribatuta dauden titulu edo egintzei buruzko egiaztapenak bakarrik eman ahal izango dira; inskribatzeko zain badaude, dagokion informazioa eman ahal izango zaie egiaztapena eskatu nahi dutenei —izapideak zertan diren ere adieraziko da—.

4.– Idazpen laburren egiaztapenak agiritegian dauden zehaztasunak hartzen ditu, berez eta besterik gabe Erregistroaren edukiaren egiaztagarri izan dadin.

Hitzez-hitzezko egiaztapena egin behar denean, fotokopiez nahiz erreproduzitzeko beste edozein bitarteko balia daiteke.

5.– Publizitatea jakinarazpen-ohar soilez edo Erregistroan jasotako idazpen eta agirien fotokopia bidez ere egin daiteke. Erregistroko idazpenak eta agiriak orri kopurua eta zein egunetan ematen diren adieraziz emango dira, behar bezala zigilaturik. Interesatuak eskatzen badu, faxez edo Erregistroak daukan beste bitarteko baten bidez bidali ahal izango dira idazpen eta agiri horiek, betiere bitarteko horrek informazioa jasoko dela ziurtatzen badu; eta originala korreoz bidali beharko da.

6.– Erregistroan inskribatu gabeko egintza edo tituluen informazioa emango da, baldin eta datu pertsonalak babesteari buruzko eta administrazio-prozedurari buruzko arauetan ezarritakoa betetzen bada, hirugarrenek prozeduran izan dezaketan interesari dagokionez.

8. artikulua.– Publizitate materiala.

1.– Erregistroko liburuen edukia denek ezagutzen dute, eta horren berri ez izana ez da aintzat hartuko.

2.– Inskribatu beharrekoak izanik inskribatu ez diren egintzek ez dute eragingo uste oneko hirugarrenengan. Hirugarrena uste onekoa jotzen da inskribatu gabeko egintza ezagutzen zuela frogatzen ez den arte.

Inskribatzeko eginbidea betetzen ez duenak ezingo du inskribatu ez izana aitzakiatzat azaldu.

9. artikulua.– Legitimazioa.

1.– Erregistroko idazpenak zehatzak eta baliozkoak direla jotzen da, eta eragingarriak izango dira harik eta zehaztasun-ezaren edo baliogabetasunaren adierazpena inskribatzen ez den arte.

2.– Zehaztasun eza nahiz baliogabetasuna adierazteak ez die uste oneko hirugarrenek zuzenbidearen arabera eskuratutako eskubideei kalterik eragingo. Zuzenbidearen arabera eskuratutako eskubideak izango dira Erregistroaren edukiaren arabera baliozkoa den egintza edo kontratuaren ondorioz eskuratu direnak.

La certificación es el único medio de acreditar fehacientemente el contenido de los asientos del Registro o de los documentos archivados o depositados en el mismo.

3.– Las certificaciones deberán solicitarse mediante escrito dirigido a la persona encargada del Registro expresando con claridad los extremos objeto de certificación, y serán expedidas en el plazo de quince días contados desde la fecha en que la solicitud haya tenido entrada en el Registro. Sólo podrán extenderse certificaciones relativas a títulos o actos ya inscritos, pero si estuviesen pendientes de inscripción podrá darse la información correspondiente, incluido el estado de tramitación a las personas interesadas a solicitud de las mismas.

4.– La certificación de asientos sucintos comprenderá los datos que consten en el archivo, de modo que sea, por sí sola, acreditativa del contenido del Registro.

Cuando la certificación sea literal podrá realizarse mediante la utilización de fotocopias o de cualquier otro medio de reproducción.

5.– La publicidad se podrá también hacer efectiva por simple nota informativa o fotocopia de los asientos y de los documentos depositados en el Registro, que se expedirán con indicación del número de hojas y de la fecha en que se extiende, debidamente selladas. A petición de la persona interesada podrán enviarse por fax, o por otro medio de que disponga el Registro, siempre que ese medio permita acreditar la recepción de la información, sin perjuicio de remitir el original por correo.

6.– La información de actos o títulos no inscritos registralmente se hará efectiva siempre que se cumpla lo dispuesto en las normas reguladoras de la protección de datos personales y del procedimiento administrativo relativas al interés de terceros en el procedimiento.

Artículo 8.– Publicidad material.

1.– Se presume que el contenido de los Libros del Registro es conocido por todos, no pudiéndose invocar su ignorancia.

2.– Los actos sujetos a inscripción no inscritos no producirán efectos en relación a terceros de buena fe. La buena fe del tercero se presume en tanto no se pruebe que conocía el acto sujeto a inscripción y no inscrito.

No se podrá invocar la falta de inscripción en su favor por aquél que incurrió en su omisión.

Artículo 9.– Legitimación.

1.– Los asientos del Registro se presumen exactos y válidos. Producirán todos sus efectos mientras no se inscriba la declaración judicial de su inexactitud o nulidad.

2.– La declaración de inexactitud o nulidad de los asientos no perjudicará los derechos de terceros de buena fe adquiridos conforme a Derecho. Se entenderán adquiridos conforme a derecho los derechos que se adquieran en virtud de acto o contrato que resulte válido con arreglo al contenido del Registro.

3.– Inskribatzeak ez ditu legeen arabera baliorik ga-beak diren egintzak baliozkotzen.

10. artikulua.– Lehenetasuna.

1.– Zernahi tituluren prebentziozko oharpena edo inskripzioa egiten bada, ezingo da beste titulurik inskribatu, delako titulua, egun berekoa nahiz lehenagoa izan, haren kontrakoa edo harekiko bateraezina baldin bada.

2.– Erregistroko eragiketak agiriak aurkezten diren hurrenkeraren arabera egingo dira, eta Erregistroan aurrena sartzen diren agiriak lehenetasuna izango dute geroago sartzen direnekiko. Salbuespen izango dira, dena den, Erregelamendu honen 3.2.b artikuluan adierazten diren lehenetasunezko egoerak.

11. artikulua.– Traktu jarraia.

1.– Inskribatu beharreko subjektu bati buruzko egintzak edo kontratuak inskribatu ahal izateko, subjektua bera inskribatuta egon beharko da aurretik.

2.– Lehendik eginda dauden egintza nahiz kontratuen aldaketa edo iraungitzea inskribatu ahal izateko, egintza edo kontratu horiek inskribatuta egon beharko dute aurretik.

3.– Ahaldunek nahiz administratzaileek egindako egintzak edo kontratuak inskribatu ahal izateko, haiek ere inskribatuta egon beharko dute aurretik.

4.– Administratzaileen, Batzorde Betearazleko kideen, kontseilari ordezkarien, zuzendari-gerenteen eta Zaintza Batzordeko kideen izendapena eta kargu-uztea inskribatu ahal izateko, lehendik hartutako erabakiek inskribatuta egon beharko dute. Arau bera ezarriko da kooperatiba-korporazioetako eta kooperatiba-taldeetako organoetako kideen inskripzioari dagokionez.

5.– Behar bezala hautatuak izan ziren arren, euren agintaldian inskribatu ez ziren kooperatibako karguen egintza eraginkorrak inskribatu egin ahal izango dira, baita agintaldia amaituta egonda ere, baldin eta erakunde eskatzailearen agiri baten bidez egiaztatzen bada horien izendapena eta legitimazioa; egiaztagiriri horrek legezko eta erregelamenduzko baldintza guztiak beteko ditu.

III. KAPITULUA
ERREGISTROAREN FUNTZIONAMENDUA

1. ATALA
LIBURUAK

12. artikulua.– Liburuak.

1.– Euskadiko Kooperatiben Erregistroan honako liburu hauek guztiak egongo dira:

- a) Kooperatiba eta bestelako enpresa-elkarteen inskripzio-liburua.
- b) Kooperatiba Elkarteen inskripzio-liburua.

3.– La inscripción no convalida los actos o contratos que sean nulos con arreglo a las Leyes.

Artículo 10.– Prioridad.

1.– Inscrito o anotado preventivamente en el Registro cualquier título, no podrá inscribirse o anotarse ningún otro de igual o anterior fecha que resulte opuesto o incompatible con él.

2.– Las operaciones registrales se practicarán según el orden de presentación de los documentos siendo preferentes los que accedan primeramente al Registro sobre los que se presenten con posterioridad. Todo ello salvo los supuestos de prioridad a que se refiere el apartado b) del artículo 3.2 del presente Reglamento.

Artículo 11.– Tracto sucesivo.

1.– Para inscribir actos o contratos relativos a un sujeto inscribible será precisa la previa inscripción del sujeto.

2.– Para inscribir actos o contratos modificativos o extintivos de otros otorgados con anterioridad será precisa la previa inscripción de éstos.

3.– Para inscribir actos o contratos otorgados por apoderados o administradores será precisa la previa inscripción de éstos.

4.– La inscripción del nombramiento y cese de Administradores, miembros de la Comisión Ejecutiva, Consejeros Delegados, Directores Gerentes y miembros de la Comisión de Vigilancia, requerirá la previa inscripción de los acuerdos anteriores que, en su caso, se hubieran producido. La misma norma se aplicará respecto a la inscripción de miembros de los órganos de las Corporaciones Cooperativas y de los Grupos Cooperativos.

5.– Los actos con eficacia actual emanados de cargos sociales que, pese a haber sido válidamente elegidos en su día, no fueron inscritos estando vigente su mandato, podrán inscribirse, aunque este mandato hubiera finalizado, siempre que se acredite el nombramiento y la legitimación de los otorgantes mediante un certificado expedido por la entidad solicitante con todos los requisitos legales y reglamentarios exigibles.

CAPÍTULO III
FUNCIONAMIENTO DEL REGISTRO

SECCIÓN 1.ª
LIBROS

Artículo 12.– Libros.

1.– En el Registro de Cooperativas de Euskadi se llevarán los siguientes Libros:

- a) Libro de inscripción de Sociedades Cooperativas y otras agrupaciones empresariales.
- b) Libro de inscripción de Asociaciones de Cooperativas.

- c) Europar Kooperatiben liburua.
- d) Gaitze eta legeztatzen fitxategi-liburua.
- e) Kontu-gordailuen fitxategi-liburua.

2.– Halaber, Erregistroa zuzen kudeatzeko egokitzat jotako fitxategi eta liburu osagarriak ere prestatu ahal izango dira.

3.– Arau honetan aipatzen diren liburu guztiak behar bezala beteta egon beharko dute, eta orri bakoitzean Erregistroaren zigilua eraman beharko dute.

4.– Liburu horietako idazpenak idazmakina nahiz prozedura informatikoz egin beharko dira, eta, nolana-hi ere, idatzitakoa ezabagaitza izan dadila ziurtatu beharko da.

13. artikulua.– Inskripzio-liburuei buruzko arau orokorrak.

1.– Inskripzio-liburuak orri mugikorrez osatuko dira. Inskripzio-liburuen goi-eskuineko ertzean orriaren zenbakia ezarriko da, eta kooperatiben eta enpresa-elkarteen inskripzio-liburuetan, berriz, dagokion liburukia ere adieraziko da. Kooperatiba bati dagokion orria erabat betetzen denean, beste bat prestatuko da zenbaki berarekin eta alfabetoko lehenengo letrarekin, eta gainontzeko letrak hurrengo orrientzat utziko dira.

2.– Inskripzio-orria lau zutabe bertikaletan banatuko da. Lehenengo zutabearen tarte bat utziko da, bertan erzeko oharrak ezartzeko —nahi izanez gero eskuz—. Beste hiruretan eguna, idazpen-zenbakia eta idazpena bera adieraziko dira, eta gainaldean, honako hauek adieraziko dira: «Ertzeko oharrak», «Eguna», «Idazpen-zenbakia» eta «Inskripzio-idazpena».

14. artikulua.– Kooperatiben eta bestelako enpresa-elkarteen inskripzio-liburua.

Hona hemen kooperatibak identifikatzeko erakutsi beharreko zehaztasunak: kooperatibaren izena, baltzuaren egoitza, lurralde historikoa, kooperatiba-mota, baltzuaren helburua, Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionalerako zenbakia eta gutxienezko baltzu-kapitala.

Era berean, orriaren goi-eskuineko ertzean kooperatibaren inskripzio-zenbakia ipiniko da, baita, hala badagokio, aurreko Erregistroan egokitu zitzaion zenbakia ere.

15. artikulua.– Kooperatiba Elkarteen inskripzio-liburua.

Kooperatiben batasun, federazio nahiz konfederazioak eta gehienbat kooperatibak biltzen dituzten beste elkarte batzuk identifikatzeko erakutsi beharreko zehaztasunak honako hauek dira: izena, baltzuaren helbidea, lurralde historikoa, mota eta espedientea Erregistroan sartu zeneko eguna.

- c) Libro de Sociedades Cooperativas Europeas.
- d) Libro fichero de habilitaciones y legalizaciones.
- e) Libro fichero de depósito de cuentas.

2.– Asimismo, podrán llevarse los Libros y ficheros auxiliares que se juzgue conveniente para la adecuada gestión del Registro.

3.– Todos los Libros a que se refiere este precepto estarán debidamente diligenciados y llevarán en cada uno de sus folios el sello del Registro.

4.– Los asientos que se practiquen en estos Libros se extenderán a máquina o por procedimientos informáticos, debiendo quedar asegurado, en todo caso, el carácter indeleble de lo escrito.

Artículo 13.– Normas comunes sobre los Libros de inscripciones.

1.– Los libros de inscripciones estarán compuestos por hojas móviles. En el ángulo superior derecho de las mismas se hará constar el número de hoja y en el de Inscripción de Sociedades Cooperativas y otras agrupaciones empresariales también el tomo correspondiente. Agotada la hoja destinada a una entidad cooperativa se abrirá a continuación otra con igual número, seguido de la primera letra del alfabeto, destinándose las restantes letras para hojas sucesivas.

2.– La hoja registral se dividirá en cuatro columnas verticales. La primera de ellas contendrá un margen para insertar en él las notas marginales, que podrán practicarse manualmente. En las otras tres columnas se hará constar la fecha, el número de asiento y la extensión del mismo, haciéndose constar en su parte superior los epígrafes «Notas marginales», «Fecha», «Número de asiento» y «Asientos de inscripción».

Artículo 14.– Libro de inscripción de Sociedades cooperativas y otras agrupaciones empresariales.

Los datos que deberán hacerse constar para la identificación de las Sociedades cooperativas son los siguientes: denominación social de la Cooperativa, domicilio social, Territorio Histórico, clase de Cooperativa, objeto social, número de la Clasificación Nacional de Actividades Económicas y capital social mínimo.

Asimismo, en el ángulo superior derecho de la hoja se hará constar el número de inscripción de la Sociedad cooperativa y, en su caso, el número con el que figure inscrita en el anterior Registro.

Artículo 15.– Libro de inscripción de Asociaciones de cooperativas.

